



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Gizakia zentzu bila**

Egilea / Autor: **Viktor E. Frankl**

Saila / Colección: Oroimenean barrena, 10

ISBN / EAN: 978-84-9109-212-4

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 216

Formatua / Formato: 13 x 22 cm

Egilea / El autor

Neurologiako eta psikiatriako irakasle izan zen Vienako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean. Vienan, Neurologia Poliklinikako zuzendari jardun zuen hogeita bost urtez. Haren "Logoterapia / Azterketa Existenziala" "Vienako Hirugarren Psikoterapia Eskola" bezala ezaguna izatera iritsi zen. Katedradun izan zen Harvard, Stanford, Dallas eta Pittsburgheko unibertsitateetan, eta Logoterapiako ohorezko irakasle San Diegoko (Kalifornia) U.S. Nazioarteko Unibertsitatean.

1905ean jaioa, Vienako Unibertsitateko medikuntzako eta filosofiako doktore tituluak jaso zituen. Bigarren Mundu Gerran, hiru urtez egon zen atxilo Auschwitzeko, Dachauko eta beste zenbait tokitako kontzentrazio-zelaietan.

Lau hamarkadetan zehar, Frankl doktoreak ezin konta ahala hitzaldi egin zituen munduko hainbat tokitan, eta Europa, Amerika, Afrika eta Asiako 29 unibertsitateetako ohorezko tituluak jaso zituen. Sari asko irabazi zituen, Estatu Batuetako Psikiatria Elkartearen Oskar Pfister saria, besteak beste, eta Austriako Zientzien Akademiaren ohorezko kide izendatu zuen.

Franklek idatzitako 39 liburuak 48 hizkuntzara itzuliak izan dira. *Gizakia zentzu bila* (edo *Hala ere, ni bizitzaren alde*) liburuaren milioika ale saldu dira. Liburu hori Amerikako Estatu Batuetako eragin handieneko hamar liburuetako bat da.

Viktor Frankl 1997an hil zen, Vienan.

Lana / La obra

Viktor Franklek kontzentrazio-zelaietan bizi izandako esperientziaren kontakizun lazgarria dugu *Gizakia zentzu bila* liburua.

Sufrimendu handiko urte haietan guztietan, bere izatearen barren-barrenean bizi izan zuen Viktor Franklek zer den bere existentziaren ez beste guztiaz erabat gabetutako existentzia bat. Den-dena galdu, gosea, hotza eta basakeriak pairatu, eta, hainbat aldiz, exekutatu izateko zorian egon arren, hala eta guztiz ere bizitzak merezi duela onartzera iritsi zen Viktor Frankl, barne-askatasuna eta giza duintasuna suntsiezinak direla esatera, *Hala ere, bizitzaren alde* dagoela aldarrikatzeraino. Psikiatra eta preso gisa, Franklek gogoeta egiten du, ezohiko itxaropen hitzak erabiliz, gizakiak zailtasunak gainditzeko eta gidari dugun eta gure bizitzari zentzua ematen dion egia sakon hori aurkitzeko duen ahalmenari buruz.

Logoterapiak (Franklek berak asmatutako metodo psikoterapeutikoak), hain zuzen ere, arreta, norberaren existentziaren zentzuan jartzen du eta gizakiak zentzu hori bilatzen egiten duen ahalginean. Zer espero du bizitzak gugandik?

Psikiatra batek kontzentrazio-zelai batean bizi izandako egitate eta gertaeran gainean utzitako lekukotasuna baino askoz gehiago da liburu hau: bizi irakaspen bat da. Berrogeita hamar bat hizkuntzatarat itzulia, liburuaren milioika ale saldu dira munduan. Washingtongo *Library of Congress*en arabera, Estatu Batuetan gehien eragin duen liburuetako bat da.

Kontzentrazio-zelaietako literaturan, klasiko bat.

